

2016-07-27

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Uzt 25, 2016

JENDETZA BILDU DA AZPEITIAN SANTIO EGUNEZ

arratsaldez ere egongo da zer egina: 18:00etan kantu poteoa egingo dute, 18:30ean errektoriaren txanda izango da eta 19:30etik aurrera txarangak alaituko ditu kaleak.


Baserritarren eguna ospatzen ari dira Azpeitian gaur, astelehena, Santio jaien baitan. Eguraldia lagun, jende ugari bildu da herriko plazan eta inguruetan, eta hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izan dute azpeitiarrek. Napar Zuzterrak taldeak eman dio hasiera egunari, txistularien laguntzarekin, eta omenaldia egin diote Nafarroako banderari. Ondoren, sagardo, txekor eta hegaluzea egon da dastatzeko, eta sagardo zein gazta txapelketa egin dituzte.

44. Sagardo Txapelketa Altuetak irabazi du 134 puntu eskuratuta. Bigarren izan da Alorrenea, 133 punturekin, eta hirugarren Begiristain 127 puntu batuta. Gazta Txapelketa, berriz, Urbiko Aizpea gaztandegiak irabazi du. Bigarren Markiña-Xemeingo Santamaña izan da, eta Elgoibarko Mausitxak eskuratu du hirugarren gazta onenaren saria.

Azpeitiarrez gain, hainbat bisitari ere badira herrian. Haien artean, Hazparneko (Lapurdi) herritarrek etorri dira, Azpeitiarekin duten senidetzeta eta harremana indartzeko. Udalak harrera egin die, eta politikari zein herri eragileak bildu dira.

Hori guztiarekin gain, urtero legez, XXXII. Cesar Valverderen oroimenezko pilota txapelketaren finalak jokatu dituzte Frontoi Txikian, Ilunpe Pilota Elkarteak antolatuta, eta herritar ugari bertaratu da partidak ikustera. Aurre benjaminetako B kategorian Mikel Iturraldek irabazi dio Aratz Urrestillari, 16 eta 9. A kategorian, berriz, Imanol Lazkanok Iker Urrestilla hartu du mendean, 16 eta 3. Benjaminetan, B multzoan, binakako finalak jokatu dituzte: Zigor Etxeberriak eta Eriz Etxeberriak 18 eta 16 irabazi diete Pello Ziarsolori eta Oihan Sarasuari. A multzoan, aldiz, 18 eta 17 nagusitu dira Xabat Azpiazu eta Iker Zabala, Iker Urrestillaren eta Odei Labakaren aurka. Alebinetan, Haritz Zubimendik eta Eneko Odriozolak 18 eta 9 hartu dituzte mendean Imanol Iturralde eta Unax Elosegi. Txapelketako azken partida, infantilena, estu-estua izan da, eta Auritz Arrizabalak eta Aratz Buldainek irabazi dute 18 eta 17, Iker Egigurenen eta Oier Alonsoren kontra.

Giro bikaina dago herriko Alde Zaharrean, eta arratsaldez ere egongo da zer egina. 18:00etan kantu poteoa egingo dute, 18:30ean errektoriaren txanda izango da zezen plazan eta 19:30etik aurrera txarangak alaituko ditu kaleak.



LAJA ETA LANDAKANDA TRIKITILARIEK BOTAKO DUTE ANDRAMARIETAKO TXUPINAZOA

PTA

Lotutakoak

ETIKETAK

ATALAK

EGILEAK



Artxibatu egin dute ahari jokoan kasua, ...

Nork: [Berria/erredakzioa](#) - Uzt 27, 2016

■ Azpeitia



Izarraitzeko mendi ibilbideen inguruko ma ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Uzt 26, 2016

■ Azkoitia



Eusebio Sacristan 'Use' irabaz ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Uzt 26, 2016

■ Azpeitia



Azpeitiko zezen-plaza jendez leporaino, E ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Uzt 25, 2016

■ Azpeitia

Urola Kostako Hitza
6.798 atseginak

Atsegin [Partekatu](#)

Itan zaituz zure lagunen artean lehena hasi atseginen

IKUSIENAK



AZKENAK

IRAKURRIENAK

IRUZKINAK



Laja eta Landakanda trikitilariak botako ...

Nork: [Azkoitiko Hitza](#) - Uzt 27, 2016
 ■ Azpeitia

Josu Labakaren GUTUNA: 'Imanol beti ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Uzt 27, 2016
 ■ Azpeitia



Artxibatu egin dute ahari jokoan kasua, ...

Nork: [Berria/erredakzioa](#) - Uzt 27, 2016
 ■ Azpeitia





AZPEITIA BASERRITARREN EGUNA JAIK SANTOI EGUNA SLIDER



UROLA KOSTAKO HITZA

Ez dago iruzkinik

UTZI IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website

POST COMMENT

© Urola Kostako Hedabideak, S.L.

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ - Tel.: 943 890 017 - Posta Elektronikoa: urolakosta@hitza.eus Perez Arregi plaza 1 behe, 20730 - AZPEITIA - Tel.: 943 813 841 - Faxe 943 150 358

Gipuzkoako
Foru Aldundia



[Cookie Politika](#) | [Pribatasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)



WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

